



RASFFaren ALERTA ETA JAKINARAZPENAK
2007ko 2. LAUHILEKOA


elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

2007ko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 928 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

| Identifikatutako arriskuak | Zenbatekoak |
|----------------------------|-------------|
| Mikotoxinak / biotoxinak | %24 |
| Kutsadura kimikoa | %20 |
| Kutsadura biologikoa | %23 |
| Metal astunak | %10.5 |
| Hondakinak | %14 |
| Migrazioak | %6.5 |
| Kutsadura fisikoa | %2 |



Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, **%90.5**ean kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta horietatik **%31** kakahueteek sortutakoa. **Kakahueteen %39k Asian** dute jatorria, Txinan bereziki. Bigarren produktu garrantzitsuena **pistatxoa** da, aflatoxinek eragindako kutsaduren **%22** da eta kasuen **%93**an jatorria **Iran** da.

Kutsadura biologikoen kasuan, **Salmonella sp.** da kutsaduren %42ren eragile. Horietatik guztietatik, **%9** *Salmonella enteritidis* delakoari dagokio. Honek **%87.5**ean **oilasko** eta **arrautzak** inplikatzeko ditu, biak europar jatorrikoak **%86**an. *Salmonella typhimurium* espeziea kasuen **%12**an azaltzen da, **indioilarra** da inplikatuena **%45.5**ean eta **%100** europar jatorrikoa da. *Salmonella sp.* da taldeko nagusi, kasuen **%79**an hain zuzen ere. **%47**an **usain-belarrak** dira eragile eta **%70**ek Asian du


jatorria. Bigarren lekuan oilategiko hegaztiak ditugu, %32ko kopurua eragiten dute eta European dute jatorria %87an.

Kutsadura kimikoari dagokionez, **koloragarriak** eta **gehigarriak** sortzen dute kasuen %57. Mota askotako produktuak dira eragindakoak, baina ez dago besteekin erkatuz gero, zenbateko handiagoa duen produktu aipagarriarik.

Inplikaturako produktuen etorki herrialdeak Asiakoak dira gehienbat. **Benzopirenoen** eta **Dioxinen** taldea da kutsadura kimikoen %18aren erantzule. Horietatik %81 oliotako arrainek edo keztatuek sortzen dute eta oliotako arrain gehienek, hau da %85ek, europar jatorria dute.

| | | | | | | | |
|-------------------------------|-----|---|-------------|--|-----------|---|----------|
| Mikotoxinak/Biotoxinak | 223 | Aflatoxinak | 202 (%90,5) | kakahueteak | 62(%31) | Asia | 24 (%39) |
| | | | | | | Amerika | 23 (%37) |
| | | | | pistatxoak | 45 (%22) | Iran | 42 (%93) |
| Kutsadura biologikoa | 214 | Salmonella sp. | 90 (%42) | | | | |
| | | <i>S. enteritidis</i> | 8 (%9) | oilaskoak, arrautzak | 7 (%87,5) | Europa | 5 (%86) |
| | | <i>S. typhimurium</i> | 11 (%12) | indioilarra | 5 (%45,5) | Europa | 5 (%100) |
| | | <i>Salmonella sp.</i> | 71 (%79) | Usain-belarrak | 33 (%47) | Asia | 23 (%70) |
| | | | | Oilategiko hegaztiak | 23 (%32) | Europa | 20 (%87) |
| Kutsadura kimikoa | | Koloragarriak eta gehigarriak Benzopirenoak eta dioxinak | 105 (%57) | gozokiak, ozpinetakoak, Elikagai-gehigarriak | | Ez dago zenbateko handiagoa duen produktu aipagarriarik | 12 |
| | | | 33 (%18) | Arraina oliotan | 14 (%42) | Europa | 7 (%85) |
| | | | | Arrain keztatua | 13 (%39) | Áfrika | 7 (%54) |
| Metal astunak | 97 | Merkurioa | 64 (%66) | Ezpata-arraina | 48 (%75) | Espainia | 35 (%73) |

Kutsatutako produktuen etorki herrialdea:



Asiari dagokionez, kutsatzaileen %44 **Txinakoak** dira, jarraian **Iran** dugu: kasuen %11.5. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortzen dituzten herrialdeak **Turkia eta Espainia** dira, kasuen %23an eta %16an hurrenez hurren. Azkenik, **Afrikan**, ez dago gailentzen den herririk eta **Amerikaren** kasuan **AEB** dira nabarmen jakinarazpen gehien sortzen dutenak (%54)

AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

Aurreko lau hilekoarekin erkatuz gero, ondorengoa da azpimarratzekoa:

- Merkurioagatik egindako jakinarazpen kopuruaren handitzea, lehen lauhilekoan 32 jakinarazpen egin ziren eta bigarreanean, berriz, 64. Aipagarria da %75eko kopurua ezpata-arrainak eragindakoa dela eta %73an Espainia dela jatorria.
- Aflatoxinek eragindako pistatxoek jakinarazpen kopuruaren murriztea, azken urteetan progresiboa izan dena. Jakinarazpenak 88tik 45ra gutxitu dira.
- *Salmonella sp.* espezieak eragindako kasuen gehitzea, 59tik 90era hain zuzen ere, eta gehienetan inplikaturiko produktuak oilategiko hegaztiak eta usain-belarrak izan dira.
- Kutsadura kimikoari dagokionez, benzopirenoen eta dioxinen taldea izatea bigarren garrantzitsuena. Horiek sulfitoak hirugarren lekura pasarazi dituzte. Eta kutsatutako produktuak arrainak dira, bai oliotan, bai keztatuak.